

POBA

# PIKUTARAT!

2.ZENBAKIA 1 €







PENTSAMOLDE BAKARRA



PUBLIZITATEA



HAZKUNDEAREN ERLIJIOA







**P**UBLIZITATEA LEKU GUZIETAN ATZEMATEN DA :  
Autobus saihetsetan, geltokietan, arratsean  
telebistan, goizetan gure gutunontzietan,  
eguerdian egunkarian, irratian, interneten,  
gure hirietako paretetan, gure bideetan  
gaindi, gure kirol zelaietan, gure haurren tisortetan...  
Egunero 3 000 publizitate mezu baino gehiago jasan  
behar dugu. Noraino joanen da bonbardaketa hau?  
Publizitatearen industriak munduan gaur egun 500 miliar  
euroko aurrekontua du. Zer bada hain erabakigarririk  
hainbeste diru, talentu eta energia horretan  
xahutzeko? Produkzioaren hazkundea baitezpadakoa  
da Ekonomiaren osagarria artifizialki atxikitzeko.  
Alta, ezin ditugu gero eta gauza gehiago ekoiztu ez  
baditugu aldi berean hauen saltzen ahalbidetzeko  
beharrek ere ekoizten. Publizitate egileak preseski  
behar hauek masiboki inokulatzen aritzen dira. Segur,  
marka bakoitza entseetzen da besteaz desberdintzera  
bere publizitate kanpainen bidez, baina marka guziek  
eta publizitate kanpaina guziek gudu berdinean  
parte hartzen dute: kontsumerismoaren frontea  
aitzinaraztea. Alde batetik lanean manatzen digute  
handituz doan salgaien ekoizpenean parte hartzera,  
baina publizitatearekin oraino manatzen digute, lanaren  
ondotik, honen salmentaz arduratzea, gohaindura arte.  
Eta absolutuki gure izpirituak pasibotasun hipnotiko  
batean mantentzera xerkatzen delarik, produktibismoak,  
nehor horretaz axolatu gabe, izadia eta jendeen desmasia  
bukatzen ari da. Publizitatea, funditze horren erregai  
ideologikoa besterik ez da.


**EZ ZAITEZTELA TRONPA : EZ DUGU PUBLIZITATEA  
BAKARRIK KRITIKATZEN, BAINA ERE HONEK  
ZUZENTZEN DUEN DESUMANIZAZIO INDUSTRIALA.**

Concentré Tri  
Réparateur In

RÉPARATEUR & P

réparation instantan  
cheveux fatigués e








**EZ GIRA ARDIAK**

**EZ DUGU MARKATUAK  
IZAN NAHI !**

Marka eguna abereendako da !



Brand (marka ingelesez) brandon-tik etortzen da. Brandon abereen markatzeko erabiltzen den burdin gorriaren izena da ingelesez. Sorogaineko kabalak bezala identifikatu nahi gaituzte! Markak pikutarat!!



**Internetean ere Püba... Pikutarat!**

Sarean diren webgune gehienak hasi dira iragarkiak ezartzen beren ikus-entzunezko elementuetan. Youtube orrian bideo bat ikusi nahi izanez gero, aintzinetik iragarki bat ezartzen dute erabiltzaileek ikusteko.

Telebisten webguneetan gero eta nabariagoa da hori. Izan ere, erabiltzaile askok telesailak edo programak ezin dituzte telebistan botatzen dituzten momentuan ikusi, eta gero ikusten dituzte sarean. Horretaz ohartuta, sarean ere iragarkiak txertatzen dituzte telebistek. **Baina horiek denak saihesteko posibilitatea bada.**

Hasteko, Firefox nabigatzailea izan behar da ordenagailuan. (Klika hemen deskargatzeko: [www.mozilla.org/eu/firefox/fx/](http://www.mozilla.org/eu/firefox/fx/)) Ondotik, Adblock Plus izeneko gehigarria instalatu behar da. (Ikus: <https://addons.mozilla.org/eu/firefox/addon/adblock-plus>)

Firefoxen, goian, Tresnak izeneko atalera joan behar da, eta agertzen den leihoan Gehigarriak aukeratu. Leiho txiki bat agertuko da, eta bertan Eskuratu gehigarriak atalean, Instalatu, Firefox berrabiarazi, eta berehala hasiko da martxan, bakarrik detektatzen baititu iragarkiak.

Ez gal denborarik, entsea eta goza ezberdintasuna! Segidan ikusiko duzu zer mailataraino iragarkiak sartuak ziren zure ordenagailu edo bizian!



# PUBLIZITATEAREN POZOINA

*Nork oraino sinisten du publizitatean?*

*Zonbait izpiritu menperatuak edo modaren biktimak berdin...  
Ingurumenaren kaltetzea (iragarki gehienak legez kanpoko guneetan dira eta),  
sexismoa, bakarrik itxuraren kondu litaiken gure irudi baten lekuko.  
Publizitateak hitz eta ideiei balorea kentzen die.*

*Denetan da.*

*Jendeak kontsumitzaile izaiterat mugatu nahi ditu eta ukaiteak izaitzea gainditzen eta  
lehenesten duen jendarte bat ordezkutzen du.*

*Sinets arazi nahi digu ongizatea edo uroostasun/zoriona kontsumitzea dela.  
Maltzurra, ideologia desbideratzen ditu xede bakar baterat: etekin/probetxurat.  
Publizitatearen ideologia bortitza eta apurtzailea da.  
Manipulatu du, desinformatze, kaltetzen...*

**Gogoeta hauen haritik, Pikutarat-ek galdezkatu du Imanol Madariaga, EHUko erakaslea, publizitatearen gaiari buruz ausnarketa sakontzeko!**

IMANOL  
MADARIAGA



**Pikutarat : Gero eta gehiago badirudi publizitateak helburu informatiboa baino gehiago gogoak sorrarazteko tresna izaitzea duela helburu?**

**Imanol Madariaga :** Bai, hori da! Nolatan gaude gaur egun honenbeste iragarkiz inguratuta? Pentsa dezakegu iragarkiak salgai dauden gaien berri publiko egiteko tresna egokia direla, baina aspalditik helburu informatiboa gaindituta publizitatea gogoak sorrarazteko da, behar ez genuen edozeren eskaria sustatzeko. "Jadanik gure erroka ez da kotxeak ekoiztea, kotxe erosleak ekoiztea baizik" esan zuen Ameriketako enpresa nagusiaren nagusiak lantegi industrialen ekoizteko gaitasunaz jabetuta, orain dela mende erdi.

**BESTELA**



**BIZI GAITEZKE !**

**Pikutarat : Helburu horien lortzeko publizitate komertzialak kutsadura bisualaren bidea hartzeko prest dela dirudi?**

**Imanol Madariaga :** Bai, metastasi legez eremu guztietara hedatu da, kalean non-nahi sakabanatuta (publikoa den ingurua pribatizatuz) edo etxe barneko intimitatearen sakoneraino irati eta telebistatik sartua. Txirindulazaleen artean esaten genuen bezala, kotxea garraio lana betetzeko hain desegokia da non egunero hamaika spot helarazi behar dizkigutela metale tona hori erosi eta erabiltzera animatzeko.



**Pikutarat :** Zer erran publizitate komertziala satsadura mentala bezala ikusten ez dutenei?

**Imanol Madariaga :** Publizitatea onerako dela defendatzen duen lagunik ere badut. Adibidez telefonia mugikorraren sareen instalakuntzen inbertsioak bideragarri izan zitezen sakeleko tresnen milioika erabiltzaile behar ziren hasieratik. Horregatik jasan behar izan genuen etengabeko spot jarioa, zientzia fikziozkoa izatetik, zelularra derrigorrezkoa izatera pasa zedin. Lagun hark lorpena ikusten du horretan, ez dute ordea asko txalotuko Afrikan gudetan ibilitako gazteek. Bai ba, publizitatearen eragin larriena produkzio masiboaren eredu ekonomiko jasangaitza posible egiten duela izan daiteke.

Era berean gizarte eredu zentralizatuaren zutabe da, gizabanakoaren askatasunaren kontrakoa. Petrolio, adreilu eta porlanaren burbuilaren pitzaduratik behera goazen oraingo honetan baliabideak zentzugabe xahutu izanaren erantzukizuna gizabanako guztiena dela esaten duten ahotsak entzuten ditugu goialdetik. Eta horrela da neurri batean, batez ere publizitatearen uholdean itotzeari aurre egiteko gai izan ez ginelako.

*“Beraz publizitatearen aurkako defentsa aktiboa izan behar da”*

**Pikutarat :** Nola babesten ahal gira publizitateaz?


**Imanol Madariaga :** Kontua hain argi egonik nire aldetik boikot osoa du publizitateak. Zenbat eta gehiago iragarri are eta barrurago doaz nire zerrenda beltzean produktu eta marka batzuk. Baina immunea izan naitekeela pentsatzea sineskeria litzake. Beti du eragina, zeharkakoa baino ez bada ere, adibidez, edertasunaren eredu moldatzen duenean.

Beraz publizitatearen aurkako defentsa aktiboa ere izan behar da. Hasteko negozio horrekin kolaboratzeari uko eginez. Gure komunikabide, ekitaldi edota blogetan lekua ematen diegunean, iragarki komertzialak gu finantzatzeko osagarriak dira edo gure zera da haiek euskarria izan dezaten aitzaki? Bilbon kaleko ordularien kasuan ez daukat dudarik, iragarkia ordularia baino hamar aldiz handiago eta ikuserrazagoa da.



**Pikutarat :** Zer egin ondorioz, menpekotasunetik ateratzeko?

**Imanol Madariaga :** Noizean behin ekintzaileek ikututako iragarkiak ikusten dira kaleetan, gizarte eredu honen irispide kaltegarrienak sendotzen dituzten iragarkien mezua margo edo pegatinaz salatu edota buelta emanaz. Baina nire ustez errazago eta osasuntsuago da zuzenean iragarkiak kendu edo ezabatzea. Kaleko paneletan papera kendu eta argia itzaltzea eginkizun atsegina izan daiteke. Aldiz etxean bertan jasaten dugun influentzia indartsuenaren aurrean apirilean mundu mailan deitzen duten "Telebistarik gabeko astea"-rekin bat egitea da burmuina freskatzeko lehen pausua. Bigarrena, eta telebistarekiko menpekotasuna gainditzeko borondate eskasa dugunondako proposagoa, tramankulu hori etxetik at mantentzea.





**Pikutarat : Hots, publizitatea pozoin soziala mota bat da, ezta?**


**Imanol Madariaga :** Enpresa potoloak dira tresna honen erabileran jaun eta jabe. Baliabide ugari dituzte bere zerbitzura: edonolako euskarriak erosteko gaitasuna, diseinatzaile eta zinemagile talentudunenen sormenarekin betetzeko. Eta noski, gaitasun horiek guztiak erabilia, lortuko ez dute ba gugan eragitea?

Argi daukate erabakiak ez ditugula arrazionalki hartzen, gure jokabide eta erabakiak emozioek gidatzen dituztela. Hortaz gure portaeran eragiteko denetariko sentimenduekin jolasten dute, plazerra edo inbidia, segurtasun nahia zein arriskuaren erakarpina, sexua edo musika, norberekeria nahiz errebeldia. Betiere etekina ateratzeari begira jendartearen pentsamoldea kutsatzeko prest. Izan ere deigarri izateko duten bideetariko bat marra gorri etikoak zeharkatzea da.

**Pikutarat : Publizitateak aseezintasuna lantzea du beraz helburu?**

**Imanol Madariaga :** Erosle lana betetzeko prest egon gaitezen gakoa guraria sortzean datza. Berdin dio egunean bi ordu lan egitea soberan ondo bizitzeko haina eskuratzeko nahiko bada ere. Asetzeke dugun desioren bat asmatu behar digute behin eta berriz. Azenarioa mutur aurrean.

Beraz XX. mendeko garapen ekonomiko industrialak ekarri zuen ugaritasuna, gure beharrianak asetzeko omen zena, guregan aseezintasun kronikoaren iturri bilakatu da. Nik neuk zera nabaritzen dut ere: badakit erakargarri bezala aurkezten dizkidaten opari guzti horiek ez ditudala nahi, erdiak zabor eta guztiak ustelkeri direla, baina korrante indartsu horren kontra igeri egitearen nekeaz ere nire benetako nahiak hausnartzeko tarte txikia aurkitzen dut.



**Bizi!-ren ekintzak  
publizitatearen kontra**

**2012ko urriaren 13an  
larunbatez burutuak**



**PUBAK,  
HEMEN JOTZEN DU!**



**NORK ORAINO SINISTEN DU PUBLIZITATEAN?**

ZONBAIT IZPIRITU MENPERATUK EDO MODAREN BIKTIMEK BERDIN...  
INGURUMENAREN KALTETZEA (IRAGARKI GEHIENAK LEGEZ KANPOKO GUNEETAN DIRA ETA), SEXISMOA,  
BAKARRIK ITXURAREN KONDU LITAIKEN GURE IRUDI BATEN LEKUKO.  
PUBLIZITATEAK HITZ ETA IDEIEI BALOREA KENTZEN DIE.  
DENETAN DA.

JENDEAK KONTSUMITZAILE IZAITERAT MUGATU NAHI DITU ETA UKAITEAK IZAITEA GAINDITZEN ETA  
LEHENESTEN DUEN JENDARTE BAT ORDEZKATZEN DU.

SINETS ARAZI NAHI DIGU ONGIZATEA EDO UROSTASUN/ZORIONA KONTSUMITZEA DELA.  
MALTZURKI, IDEOLOGIAK DESBIDERATZEN DITU XEDE BAKAR BATERAT: ETEKIN/PROBETXURAT.  
PUBLIZITATEAREN IDEOLOGIA BORTITZA ETA APURTZAILEA DA.  
MANIPULATZEN DU, DESINFORMATZEN, KALTETZEN...

**PUBA.... PIKUTARAT!**



# BAZTERRAK HARROTZEN

Ikasleak iraulketa  
klimatikoaren aurka

Euskal kanpuseko ikasleen elkarte  
baten sortzeko bilkura  
urriaren 22an astelehenarekin  
arratsaldeko 5ak t'erditan  
Baionako Paul-Bert plazan den  
IUTKo Iparla gelan  
**Ez dugu B planetarik !**  
Kalaka aski, orain ekin dezagun !

Xehetasun guziak : [info@bizimugi.eu](mailto:info@bizimugi.eu)  
Tel : 05 59 25 65 52



PAF (pour une alternative féministe)-ek

antolatu unibertsitatea :

azaroaren 15, 16 eta 17an Baionako IUTan  
« Familia gogoetatu. Harreman biologigotik  
haratago, familiaren kontzeptua »



Laster Euskal  
moneta :

[www.euskalmoneta.org](http://www.euskalmoneta.org)



**BIZIRIK! Bizi!ren Euskal Irratietako  
emankizuna!**  
Hilabeteko 3. astelehenetan, arratseko  
19:00etarik goiti !

Datozen 2 hitzorduak :

- Astelehena, azaroaren 19an,  
**Oparitu xahutu gabe!**
- Astelehena, abenduaren 17an!  
**Zaharkitze programatuaz!**



"Barnekaldian Bizi!"

Duela zombait hilabete Bizi!k badu  
tokiko talde bat Donibane Lohitzune  
inguruan.

Bizi! Larrun Taldea, ari da untsasko  
antolatzen, hilabetean behin militanteen  
bilkura bat segurtatuz, Autoari Alternatibean  
eskaintzeko proiektu gottor bat landuz,  
trakta banaketak segurtatuz eta hainbat  
Bizi!ren ekintza orokorretan ere parte  
hartuz!

Ari gira Barnekaldeko kide edo lagun  
batzuren partez galderak ukaiten "*Badea  
posibilitate bat barnekaldean berean  
antolatzerat Bizi! bezala?*"

Bai noski ! Eta Baxe Nafarroan edo  
Xuberoan "*Larrialdi ekologikoa eta justizia  
soziala uztartuz*" mobilizatu nahi duten  
guziak gomituak dira [info@bizimugi.eu](mailto:info@bizimugi.eu)  
helbiderat beren kontaktuak hel arazterat.  
Laster Bizi!ren barnekaldeko kide eta  
lagunek antolatuko duten bilkura baterat  
gomita ukanen dute!

**Azaroaren 10an, denak Baionarat !**  
"Giza eskubide guztiakin,  
euskal presoak Euskal Herrira!"  
**Manifestaldi nazionala**  
Arratsaldeko  
15:30etan (ttanko) Euskaldunen plazatik.



**PIKUTARAT** Bizi!-ren euskara hutsezko  
fanzina da. Ekologia eta justizia sozialaren  
gaien inguruan artikulu laburrak, iritziak,  
komiki desbideratuak, publizitate  
desbideratuak, marrazkiak, elgarrizketa  
faltsuak...sartzen ditugu, ale baktotxean gai  
bat hautatuz. Paperez inprimatzen dugu  
eta blogean ere emaiten dugu. Bilkurak  
zintzur bustitze eta krakada baten inguruan  
egiten ditugu giro goxoan, izan euskaldun  
zahar edo euskaldun berri, ongi etorria zira  
Pikutarat fanzinaren talderat! Xehetasun  
gehiago : deitu 06 74 75 57 70 edo  
[pikutarat@gmail.com](mailto:pikutarat@gmail.com)



# BETHI AINTZINA : OKUPAZIOA

Uda huntan izan da mugimendu Donaixti aldean. Zonbait galdera pausatu ditugu San Mixel-en okupazioa egin duten Bethi Aintzina elkarteko kideei, haien egitasmoaren berri emaitako :



**Nola pasatu da okupazioaren hastapenean eskolan sartzeko ?**

Eskola hau azken 3 urtetan hutsa zela, abandonatua! Bastimenduak ebasketak jasan zituen, jendea sartzen zen bastimenduan nola nahika, beraz eskolara sartzeko ez da zaila izan portak idekiak baitziren! Sartu gira gauaz, garbiketa pixka bat egin! Biharramunean leihoak ideki publikoki ta lotu gure proiektuari!

**Zenbat jendeke parte hartu dute okupazioan ? Zer jende mota egon da okupazioan ?**

Okupazio hunek aintz jende mobilizatu ditu, okupazioa bultzatzeko taldea 10 bat pertsonaz osatua zen, gehienak gazteak eta oztibartarrak. Gero, okupazioan kasik 20 pertsona ginen egunero san mixelen, hor ere gehienak gazteak bainan barnekaldeko xoko desberdinetakoak izan oztibarre, amikuze, xiberua edo baigorri!

Jakin behar da ere okupazio hunen proiektuaren eramaiteko elkarte bat sortu da eta hunek 280 kide biltzen dituela gaur egun, barnekaldeko xoko desberdinetako biztanleak, adin guzietakoak horiek kultur gune autokudeatuan inplikatzeko xedea dute gehiago! Azpimarratzekoa dena ere hilabete bat eta erdiz 650 pertsona paastu direla Donaixtitik eta haien sustengua erakutsi petizionea izenpetuz baita obretan partehartzuz, kultur emanaldiak eskainiz!!!!

**Gauza aintz antolatu dituzue, kontzertuak, proiektzioak, eztabaidak... bi hitzez bilduma bat ?**

Bilduma baten egiteko zaila baina saiatu gira epe labur huntan gure amets bizia eman, hots, norberak bere gustuen arabera proposamenak egin ditu, amets batzu elgarrekin asmatu eta gauzatu ditugu ere bai izan bideomuntaketa batzu sortuz, kantuak ere, bi artisten arteko trukaketak bultzatu...Zuk



erran bezala aintz animazio eskaini ditugu puntualak bainan tailer iraunkorren egiteko asmoa ginuen ere, hori baita ere toki hunen helburua: antzerki, bideo, serigrafia eta irrati tailerra abiarazi behar genituen urriatik! Musikarien sorleku bat ere sortu nahi ginuen, 7 erakasle atxeman genituen bainan ez da fini....beti segitzen dugu gure amets bizia emaitako xedearekin!



Gaurko globalizazioak jendea bakardadean uzten du, ardiak bagina bezala telebistak, publizitateak... nola eta zer erosi behar dugun agintzen du, gure ongizatearentzat omen.... Aktibitate kulturalak, sozialak edota aisaldiak merkatu bilakatzen dira gero eta gehiago. San Mixel-eko okupa erresistentzia mota bat dela erraiten ahal ginuke, zer diozue hortaz ?

Bai, kultur gunea baino haratago bizi gune bat izan nahi du san mixel-ek . Tresna bat izan nahi du justuki beste bizimodu batzuen asmatzeko eta gauzatzeko kolektiboki! Jada etxebizitza kolektiboa aipatzen delarik beste bizi modu bat da kolektiboa, beste egiteko eta izaiteko manerak sortzen dituenak! Ingurumenari begira ere proiektuak badira eraikuntzako obra taldean!

Kulturguneak partehartzaile herrikoi eta askatzaile izan nahi du, herritarrek kultura bizitzeko eta biziarazteko aktiboki! Diruztatzean berezitasun bat du ere gure proiektuak autonomia izan nahi baitu: gure konduen sartze nagusiak ez dira diru laguntzak ez eta sponsorak bainan jendearen ekarpenak (lan tenoreak, materiala...)!



**Geroari begira zer pentsatzen duzue egitea ondoko hilabeteetan ?**

Guk gure proiektuan sinesten dugu! Bastimendua zerratua izan da berriro buruilaren 6an, ez da proiekturik hunendako! Nola ez herritarren ametsak biziarazten ahal duen bastimendu hunen idekitzearen alde izan? Segitzen dugu gure proiektua. Aurkezpen txosten bat ari gira idatzen laster telekargatzen ahalko dena gure facebook-en, sustengu kainpainia bat ere ari gira muntatzen, animazioak segituko ditugu hilabeteen behin

eta serorer hitzordu bat proposatuko diegu berriro.....ofizialki erran baitzuten gu kanpoan izan orduko gurekin solastatuko zirela! Ea?



**Jendeek eta gazteek, nola laguntzen ahal zaituztegu ?**

Ze laguntza mota? gure proiektuaren aintzinarazteko biltzen gira asteart guziz, atseko 8ak eta 30tan izurako herriko etxean, bilkura idekiak dira, jendeak eta gazteak hurbiltzen ahal dira gurekin proiektuan partehartzeko, ideien ekartzeko....(ez da engaiamendu bat, puntuala izaiten ahal da!). Artistek ere animazio edo emanaldiak proposatzen ahal dituzte! Auzitegiaren fres zehatzak ez dakizkigu oino bainan seguraski sustengu gaualdi bat eginen dugu laster horien estaltzeko eta hor dei bat berezi bat eginen dugu jendeari huntan partehartzeko!!!



**BETHI AINTZINA proiektua segitzera doa!!!!**

Azken asteetan ukan duen sustenguak frogatu du ez dela afera hau hortan uzten ahal eta Aurrera bolie!!!


Bilkurak segituko dira proiektuaren aintzinarazteko: asteart atsetan, 8ak eta 30tan, Izurako Haize Berrin ! Dener Idekiak!

Azken aldietako gaiak:

- Kanporatzearen ondotik, serorekin harremana
- Sustengu kanpainaren berri
- Proiektuaren aurkezpenaren txostenaren lehen irakurketa
- Herritarren zuzendutako inkesta (aktibitateen beharren zehazteko, barne musika eskola)
- Heldu diren animazioak



# PÜBAREN LILURA



Azken 10 urte hauetan "green marketing"ak sekulako indarra hartu du: dena berde bilakatzen da, sustut gehienik satsutzen duena (multinazionalak, Medef-a, zentral nuklearrak, Porsche-ak, Formula 1-a, ...)

Urriaren 27ko LGV-aren kontrako manifa Baionan: gaur egungo errepideen saturazioaren kontra, aurrezpenak egiteko eta klima uzkailetaren aurka auto-parteka dezagun!

Urriaren 27an, Larunbatarekin Baionako LGV-aren kontrako manifara joateko (15:00 Lauga gelan); trena edo autobusa hartzeko paradarik ez baduzue, auto-parteka ezazue ondoko loturaren bitartez izena emanez:

<http://www.wigowiz.com/carte.php?m=Cpc1568>

Ez dugu LGV bide berri baten beharrik Baina autobus eta hurbileko tren + bai!

Bizi!





**Patxokiaren heldu den idekitzeak :**

- urriaren 27a larunbata : AHT-ren kontrako gualdia
- azaroaren 10a larunbata : XILABA gualdia
- azaroaren 17a larunbata : PAF gualdia
- azaroaren 30a ostirala : EH Maroko gaşa

**KONTZERTUAK :**

**2012/10/24 Baiona – Kixkil**

Iceberg gualdia: Strasbourg + Monsieur Crane + Black Coco Sabbath  
**2012/10/25 Baiona – Kixkil**

Smoke Deluxe + Z Bone Project + The Hell's Hens

**2012/10/26 Biarritze – Atabal kafe**

Antifun Krieg + Amarakill + Casus Belli

**2012/10/31 Baiona – Polo Beyris**

Blastwave + Homicid Squad + The Red Hot Nipples

**2012/10/31 Lasa – ELB gazte/GAGA gaztetxea**

Kuxkuxtu txaranga + Kuma no motor + The enterprise + Holako

**2012/10/31 Donapaupe – Aldaka gaztetxea**

Iparraldeko konpilazioa zuzenean

**2012/11/01 Baiona - Atalante**

Barn Owl + film "Grand Capricorne"

**2012/11/03 Hendaia – Metal'o'ween**

Manimal + Mandragora Negra + Scars on Murmansk + Elbereth + Can of Worms

**2012/11/06 Sara - Usopop & Brah Brah**

Monsters Build Mean Robots (PostRock;UK)

**2012/11/09 Biarritze – Atabal kafe**

Menace + Kuma No Motor + Smoke Deluxe

**2012/11/10 Hazparne – Ttattola**

Torii

**2012/11/15 Biarritze – Atabal kafe**

Psychedelic Gaua #1" - Ancient Sky + Sacramento

**2012/11/17 Baiona – Kixkil**

Ultra Panda + sorpresa

**2012/11/17 Donaixti – Bota gaztetxea**

6. urtebetetzea !!

**2012/11/21 Baiona – Kixkil**

Juffage

**2012/12/06 Biarritze – Atabal kafe**


Nephalokia + Hypno5e « Grui Grui »rekin

**Iparraldeko bertso xapelketa :**  
 Finalerdiak Hendaian urriaren 20an arratsaldeko 5etan zineman eta Garazin urriaren 27an arratsaldeko 5etan, zineman ere.

Eta finala azaroaren 10ean, Baionako Lauga gelan, arratsaldeko 5 terditan.

**Azaroaren 29an ortzeguna 20:30tan Baionan**

Maialen Lujanbio ta Xabi Erkiziaren bertso-soinu emanaldia



**Urriaren 26a ostirala, Gartxot eguna.**  
 Baionako Atalanten 20:00etatik goiti aperitif-a : Filma Atalanten Amaren alabak. Kalejira. Solas-molas. Eta gehiago.

**BATUKADA BIZI !**  
 Kontra-gailur, ekintza, elgarretaratze, manifestaldi... animatzeko! Rythm of resistance batukada militanteen europar sareko kide gina.  
 Erriitmo eroak gustatzen zaizkizu? ONGI ETORRI !  
 + info : 06 74 75 57 70 - martin\_eli@kaixo.com

**Batukada :**  
 Heldu den ateratzea : urriaren 27a larunbata AHT-ren kontrako manifa  
**ZATO GUREKIN!**

**ERREPIKAK ASTEAZKENETAN, MIARRITZEKO GAZTETXEAN**  
 19:00etatik 21:00etarate, bi astetatik behin



Laster Euskal moneta :  
<http://www.euskalmoneta.org/>

**PIKUTARAT** ale honen egiteko  
 Casseur de pub  
 (casseurdepub.org)  
 mugimenduaren liburu batetik atera argazki eta testuak baliati ditugu. Milesker handi bat !



## ZUK ERE ITZAL EZAZKIZU SALTOKIEN GAUEKO ARGIAK !!

Gure ikus-espazioak, gero eta inbadituagoak, gure gain-kontsumitze ohiturak elikatzen ditu.

Egia baldin bada ere **saltokien gaueko argiak** energia kontsumo orokorraren parte ttipi bat direla, xahutzearen egiazko sinboloak dira !

Arrazoin guzi horientzat Bizil-k herritarrak haien aldetik gaueko argiak itzaltzerat deitzen ditu, beren bizitegian edo auzotegian:

**Zonbaif ohituren aldatzeko garaia heldu zauku !!**

Denen interesean egiten den jestu bat da, errexa eta bortizgabea.


Zertaz akusatua izan ? Errexki berriz pizten ahal den argi bat itzaltzeaz ? Eta zer ?

Ez baldin bada deus hausten, ez da gauza ainitz ariskatzen, ez eskuburdinik, ez "garde à vue"rik, ez isunik.

*Aldiz, kasu eman hala ere gauaz erabilgariak diren eraikinen argiak ez itzaltzea (hotelak...).*

Horra nola egin behar den hetsia den denda baten argien itzaltzeko garbiki eta arriskurik gabe: **suhiltzaileen kutxatxoa atxeman ondotik, bere palanka jeutsi !**

Xehetasun + : <http://luciole.bizimugi.eu>



**bizi!**

20-22 Cordeliers karrika BAIONA  
05 59 25 65 52  
info@bizimugi.eu - www.bizimugi.eu





## PUBA PIKUTARA !



Publizitateak ez du deus egitekorik eskoletan. Printzipioz, Publizitatea debekatua da leku horietan. Ikasle, guraso, irakasle, merkantilismoa eskolatik kanpora dezagun!



Haurrak eta nerabeak ez dira marken aldeko gizonogitartekoak edo emazteogitartekoak. Marka bat afitxatzearekin, multinazional bati men egitea da.




Orri hau fotokopia ezazue eta zuen eskola, kolegioko paretetan ezar ezazue, eztabaidak, ekintzak antola itzazue.

**PIKUTARAT!**  
[pikutarat@gmail.com](mailto:pikutarat@gmail.com)



# PUBA ESKOLATIK

# KANPORA DEZAGUN !



Publizitate egileak, droga saltzaileak bezalakoak dira, haurrak eta nerabeak eskola eta lizeoen aitzinean igurikatzen dituzte. Biziki ongi dakite gazteak goizago hartuz eta hauei zailago izanen zaiela kontsumitzeaz desintoxikatzea.

Publizitatearengatik, gero eta haur gehiagok pairatzen dute loditasun eritasuna. Hau da publizitate egileen lana: gazteak marketara eta kontsumitzera arrunt emanak izaten bultzatzea, planetaren beste puntako haur batzuk ustiatzen dituzten enpresa handi batzuei mesedegarri izateko.



ESKOLA



Publizitatea debekatua da eskolan, ez die horrek trabarik ekartzen publizitate egileei bide guziak bilatuz, han sartzen entseatzeko. Orduan, aitzina pubaren kontrako ehiza! Afitxa hau zure eskolako pareta batean ezar ezazu. Eztabaidak antola itzazu zure lagunekin, zure irakasleekin, zure gurasoekin. Publizitateari iharduki behar zaio.